

Oporrik ez segurtasunarentzat

Etxeko pertsiak erdi irekita uztea, Interneteko gizarte-sareetan bidaiaren berri ez ematea eta ekipajea ongi zaintzea dira lapurretak saihesteko oinarritzko arauak

Lapurrek ez dute oporrik hartzen; beti edukitzen dituzte begiak erne, eta are gehiago udan. Neurri zorrotzak hartu behar izaten dira sasoi horretan, bai etxean, bai bidaietan eta bai oporlekuan bertan ere.

Datuak ez dute gezurrik esaten: Kriminallitate Balantzeak esaten duenez (Espainiako Barne Ministerioak argitaratzen du), 2012. urteko lehen hiruhilekoan indarrezko 31.851 lapurreta izan dira etxebizitzetan, aurreko urteko epe berean baino % 22,3 gehiago. Eta pentsatzekoa da zifra horiek handitu egingo direla udako oporretan. Bi autonomia erkidegotan soilik murriztu dira lapurretak urtariletik martxo bitarte, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Melillako hiri autonomoan, hain zuzen ere. Zer etor litekeen jakinda, oporretan segurtasun-neurri batzuk hartzea komeni da.



Etxean gauden bitartean


- └ Etxeko aurrekontuak uzten duen neurrian, ahalik eta segurtasun-sistema gehien jartzea komeni da: ate blindatuak, hesiak leihoetan, terrazetako itxigailuak, alarmak, eta abar. Ate blindatu edo gotortu bat jartzea 800 eta 1.800 euro artean kostatu liteke.
- └ Etxe inguruan jende susmagarria dabilera sumatuz gero, Poliziari jakinaraztea da onena.
- └ Ate ireki aurretik, behatxulotik begiratu behar da. Atezain elektronikoari eragin eta ezezagunei sartzen uztea gure segurtasunaren aurkakoa izan daiteke, eta gainerako bizilagunak ere arriskuan jar ditzake. Bideo bidezko atezaina jartzeak, adibidez, hobetu egiten du eraikineko segurtasuna.
- └ Kontu eduki behar da ustez zerbitzu-horniduran dabilzan langileekin (ura, gasa, argindarra, eta abar). Identifikazioa eskatu behar zaie, etxera sartzen utzi baino lehen.
- └ Nahiz eta minutu gutxi batzuetarako irten, leihoak ixtea komeni da, eta dauzkagun segurtasun-neurri guztiak erabiltzea.
- └ Lotan gaudela, leihoak eta balkoiak ez dira erabat irekita utzi behar. Etxebizitzetan jendea lo dagoela egiten dituzten lapurretarik gehienak goizaldeko ordu bata eta hirurak bitartean izaten dira, loaldirik sakoneneko garaian.

- └ Leku baztertu batean bizi bagara, ongi erakutsitako txakur batek laguntza handia eman dezake lapurrek agertuz gero.



Oporretan irteten garenean

- └ Ez dugu zabaldu behar bidaiaren joateko asmotan gabiltzala; gizarte-sareetan horren berri ematea, eta nora eta noiz joango garen kontatzea oso arriskutsua izan daiteke.
- └ Aseguru-konpainiek gomendatzen dute arropa pixka bat uzteko zabaldua eta pertsiak ez erabat itzeko, etxean norbait dagoela pentsarazteko jendeari.
- └ Ateak, leihoak eta balkoiak, eta gara-jeko edo lorategiko sarbideak izaten



dira gunerik ahulenak, eta lapurrak horietatik sartzen dira etxeetara. Hori dela eta, ongi itxita utzi behar dira. Hona hemen kontuan hartzeko neurri batzuk:

Garajetik zuzenean etxera sartzeko aterik baldin bada, ate horrek ere etxeko ate nagusiak bezalako segurtasun-neurriak eduki behar ditu.

Kanpotik eskura samar geratzen diren leihoek itxita egon behar dute, eta, ahal bada, hesiekin babestuta. Familia bakarreko etxeetan, etxabeetan edo atikoetan alarma-sistema bat jartzea komeni da. Eraginkorrak izaten dira lapurrei aurre egiteko, eta, gainera, merkatu egiten da etxeko aseguruak, % 15 eta % 20 inguru.

- └ Bizilagunen bat jakinaren gainean jartzea komeni da, oporretara goazela eta etxea hutsik geratuko dela jakin dezan, eta zaratarik entzun edo mugimendu arrarorik ikusten badu, Poliziari dei diezaion. Guri deitzeko telefono bat uzteaz gain, posta biltzeko eskatu behar diogu konfiantzako norbaiti, postontzian pila ez dadin.
- └ Giltza sekula ez da utzi behar lanparesaren azpian edo lorontzi batean sartuta, eta atean ere ez da oharrik utzi behar etxean ez daudela adierazteko.
- └ Lapurrek, balio handiko gauzak ere eramane arren, dirua nahi izaten du-

te. Hori dela eta, hobe da etxean ez edukitzea diru askorik eta bitxirik. Bankuko segurtasun-kutxetan jar daitezke, edo konfiantzako norbaiti utzi.

- └ Txeketegia ez da utzi behar norberaren sinadura ageri den beste dokumentu batzuen ondoan.

+ www.consumer.es



BIDAIAN GOAZELA ETA OPORLEKUAN GAUDELA

- Identifikazio-dokumentuak (gure NA edo pasaporteak) eta Gizarte Segurantzako txartela aldean eramatea da egokiena.
- Ez da ibili behar diru askorekin. Hobe da kreditu-txartelak, gasolina-txartelak, eta abar erabiltzea.
- Ibilgailua erabiltzen denean, balioko objektuak ez dira agerian utzi behar.
- Aireportuan, sekula ez da norbere izenean erregistratu behar beste norbaiten ekipajea.
- Trenean edo autobusean bidaiatuz gero, zaindu egin behar dira maletak, batez ere tarteko geldialdietan.
- Hoteleko gelan edo apartamentuan, dirua eta balioko gauzak ez dira agerian utzi behar. Hobe da segurtasun-kutxa bat alokatzea.
- Tentuz ibili behar da ezezagunek egindako oharrekin (arropa zikindu dela, autoa matxuratu...), eta ez da parte hartu behar kalean izaten diren zorizko jokoetan, gehienetan iruzur egiteko izaten dira eta.